

UDALAREN OSOKO BILKURA

2018ko ekainaren 28ko ohiko bilkura

BERTARATUTAKOAK:

ALKATE-UDALBURUA

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
IKER AGIRRE BARTZENA (1)
XABIER LOSANTOS OMAR
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
DIONI ANDRES BLANCO

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN
M^a DOLORES LOZANO MUÑOZ
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
ARITZ TELLITU ZABALA

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Talde Popularrak:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZOIA

AZALDUTA:

IDOLA BLASCO CUEVA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

EUSKARAKO ITZULTZAILEA

MATTANE URIARTE AND.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

IDAZKARITZA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

(1) 20:46an joan da, 8. puntua eztabaidatzen ari zirelarik.

Leioako udaletxean, elizate honetako Udaltzarak osoko bilkura egin du bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita zortzian, hemeretziak eta lau minutuan. **CARMEN URBIETA GONZALEZ alkate-udalburua** bileraren buru izan da, eta alboan agertzen diren zinegotziek parte hartu dute, zeinek Udaltzara izatez eta eskubidez osatzen duten kideen legezko gehiengo osatu duten. **CHIARA CAMARÓN PACHECO idazkari nagusiaren** laguntza izan dute, eta helburua ohiko bilera egitea izan da, Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikularen ondorioetarako. Alkate-udalburuak alde aurretik dei egin die bertaratutakoei, lehen aipatutako legearen 21.1.c) artikularekin bat etorritik, eta Herritarrek Parte Hartzeko Leioako Araudi Organikoak, 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz onetsi eta urte bereko irailaren 23ko 182 zenbakidun BAOn argitaratutakoak, 22. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa betez.

Aipatutako orduan, Udaltzarak ekitaldiari hasiera eman dio, lehenengo deialdian, eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai zerrendari heldu zaio:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- HONAKO AKTA HAU ONESTEA:

- 2018-05-31ko ohiko osoko bilkura.

Adierazi da onesteke zegoela aipatutako bilkuraren akta, eta Udaltzari eman zaio onesteko.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalbatzak, bilkurara bertaratutako kide guztiek aho batez erabakita, 2018ko maiatzaren 31n egindako osoko bilkurako akta onetsi du. Ez da horri buruzko oharrik egin.

2.-2017KO URTEKO FISKALIZAZIO-TXOSTENA:

Aintzat hartu da 44. zenbakidun irizpena, 2018ko ekainaren 19ko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian hartutakoa, (horren ziurtagiria espedientean jaso da).

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

Grupo Popular de Leioa Taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea

Sí, *arratsalde on*, buenas tardes. En cuanto a este informe de Intervención, no procede su votación, pero sí queríamos remarcar parte de lo que se dice en el mismo, en referencia a una serie de contratos que, si no hemos entendido mal el contenido del informe, se mantienen en situación irregular. Se hace una relación concretamente de 19 contratos del Ayuntamiento de los cuales se dice en el informe que los tres primeros de esa relación están ya corregidos, digamos que ya no están en situación irregular, por lo tanto, se entiende, que el resto de los 16 contratos de muy diferentes departamentos, se dice que están en situación o de vencimiento —la mayoría— o no licitados, es decir que un total de 16 contratos de este Ayuntamiento están en situación irregular y, por tanto, creo que es un tema importante que merece ser destacado de forma negativa y que debería ser corregido a la mayor brevedad posible.

Euzko Abertzaleak Taldeko M^a del Carmen Urbietta González Alkatearen esku hartzea

Sí, estoy de acuerdo contigo, debe ser corregida esta situación. Estamos preparando un montón de pliegos para poner en orden esas contrataciones, pero bueno, tenemos una dificultad en el departamento de Contratación y lo vamos abordando de la mejor manera posible, pero sí es cierto.

Ikusi da Udal Kontu-hartzailearen txostena; honela dio, hitzez hitz:

AURREKARIAK

Abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoak (BOEn argitaratua 2013ko abenduaren 30ean) Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren (aurrerantzean TOALTB) artikulua aldatu zituen, toki-erakundeetako fiskalizazioari buruzkoak.

Zehazki, TOALTBko 213. eta 218. artikulua berridatzi zituen, Kontu-hartzaileak Osoko Bilkurari jakinarazi behar dizkion bi txosten arautzeko: bata, Kontuen Epaitegiari zuzendutakoa, eta, bestea, Osoko Bilkurari berari zuzendutakoa.

Otsailaren 3ko 2/2015 Foru Arauak, Bizkaiko Toki-erakundeen Arrazionalizazioari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Legearen zenbait artikulua aldatu zituen, eta 70. eta 63. artikuluetan honako hau xedatu zuen:

63. artikulua. Urteko kontuak gertutu eta onesteko prozedura.

(...)

4. Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, Kontu Orokorra Udaltzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailearen 31 baino lehen onetsiko da.

5. Toki erakundeek behar bezala onetsitako Kontu Orokorra eman behar diote Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arantegian berariaz ezarritakoaren arabera; orobat eman behar dizkiote Udaltzako buruak eta Udaleko Osoko Bilkurak Kontu-hartzailetzak egindako ingeren kontra hartutako ebaspen eta erabaki guztiak, bai eta sarrerak direla-eta atzemandako gorabehera nagusien laburpena ere. Aurrekoetz gainera, toki-korporazioak kasu bietan aurkeztutako justifikazio-txostenak ere eman behar zaizkie Epaitegiari.

70. artikulua. Ingerak.

(...)

6. Kontu-hartzailetzako organoak txostena bidali behar dio Osoko Bilkurari, non Udaltzako buruak egindako ingeren aurka hartutako erabaki guztiak jasoko diren, eta sarrerak direla-eta atzemandako gorabehera nagusien laburpena ere bidali behar dio. Txosten horretan bakarrik jasoko dira fiskalizazio-eginkizunari lotuta dauden alderdiak eta egitekoak, eta ez dira sartuko fiskalizatzen diren jarduketak ikusita egokituzat edo komenigarritzat jo litezkeen beste alderdi batzuk. Udaltzako buruak bere jarduna justifikatzeko txostena aurkeztu ahal izango dio Osoko Bilkurari.

Bestalde, apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautu zuenak, honako hau ezarri zuen:

37. artikulua. Laburpen-txostena:

1. *Organo kontu-hartzaileak, urtero, kontu orokorraren onspenaren harira, laburpen-txosten bat prestatu behar du Toki Ogasunak arautzen dituen Testu Bateginaren 213. artikulua ezartzen duen barne-kontrolaren emaitzei buruz.*

Aurrekontua Betearazteko Arauaren seigarren tituluak, “Gastuaren fiskalizazioa eta kontrola”, honako hau xedatzen du hitzez hitz:

18. oinarria.- Aurretiko fiskalizazio mugatua

Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 30ean egindako batzarrean, udal kontu-hartzaileak proposatuta, aho batez erabaki zuen 10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluan aurreikusitako fiskalizazio mugatuaren ezarpena onestea. Bertan adierazten da gaien aurretiko fiskalizazioa honako alderdiak egiaztatzeke bakarrik egingo dela. Aurrekontua betearazteko honako arau hau 2015eko Udal Aurrekontuaren eranskin modura onetsi zen, eta haren bitartez C atala gehitu zen, gastu-betebeharra daukaten agiriei buruzkoa.

Derrigorrez aurretiko fiskalizazio mugatua jasan behar duten edukiak

- A.- Aurrekontuetan krediturik dagoen ala ez, eta proposatzen dena egokia den ala ez hartu nahi den gastuaren edo eginbeharraren izatearako.
- B.- Betebeharra edo gastuak eskumena daukan organoak sorrarazitakoak direla.
- C.- Betebeharra edo gastua eusten duten agiriei beharrezko sinadurak eta baldintzak dauzkatela. Horren harira, gastuaren betebeharra aitortzeko euskarri den dokumentuak zerbitzua, hornikuntza, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzeke edo oniritzia emateko arduradunaren sinadura jasoko du.
- D.- Kudeaketaren prozesuan daukaten garrantzia dela eta, Osoko Bilkuran zehazten diren bestelako puntuak.

Ohar osagarriak eta aurretiko fiskalizazioaren mende ez dauden gastuak

Kontu-hartzailetza organoak komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin abal izango ditu, baina horiek ez dute inolaz ere ondoriorik izango dagozkien espedienteen izapidetzeak eteteke. Horrezaz gainera, betebehar osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun-planteamendurik aplikatuko. Udal Kontu-hartzailetzak abalmena izango du material inbentariaezinen gastuak eta kontratu txikiak aurretiaz hartuko diren ala ez erabakitzeke; era berean, segidako traktuko inguruan erabaki abal izango du, egintza edo kontratu sortzailearen edo bere aldarazpenen hasierako epealdiko gastuaren kontu hartu ondoren. Horri dagokionez, kudeaketa-sail bakoitzaren erantzukizuna izango da dagozkien aurrekontu-partidetan kreditua dagoela egiaztatzea.

Geroagoko fiskalizazioa

10/2003 Foru Arauaren 71. artikuluko 2. atalake aipatutako aurretiko fiskalizazio mugatua egiteko duten obligazio edo gastuei beste fiskalizazio oso bat egin abal izango zaie ondoren, fiskalizazio hori sorrarazi zuten egintzak, agiriak edo espedienteak ordezkatzen dituen laginketa baten gainean, laginketa edo auditoriako teknikak erabilia; betiere, kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera diren egiaztatu eta kredituen kudeaketan legezketasuna noraino bete den zehazteko denean. Emaizta barne-kontrolari buruzko urteko txostenean jasoko da. Txostena, abal dela, kasuan kasuko ekitaldiko kontu orokorra onestean aurkeztuko da erakundearen osoko bilkuran.

Eragozpenak eta horien izapidetzea

*Kontu-hartzailetzaren zereginak egin bitartean kontu-hartzailetza organoak aztertutako ekintza, agiri edo espedienteen mami edo itxurarekin ados ez dagoela adierazten badu, idatziz aurkeztu beharko ditu **eragozpen** horiek, erabakia edo ebazpena hartu aurretik, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 70. artikuluko araututakoari jarraiki.*

Osoko bilkuran ebatzi beharreko eragozpenei dagokienez ("aurretiko fiskalizazio mugatuak derrigorrez jaso behar dituen edukiak" epigrafearen A eta B atalake), ebazpenak halaberrez egin beharko du aldaketaren bat aurrekontuan gastu hori estaltzeko. Hau da, honako bi kasu hauetan horrela jokatu beharko litzateke:

- a) Kreditua nabikoa edo egokia ez delako, edo organoa eskuduna ez delako, sortzen direnean.
- b) Onesteko eskumena berea den kasuetako betebehar edo gastuei buruzkoak direnean.

Alkatetza-udalburutzak ebatzi beharreko eragozpenen izapideei dagokienez, azken horrek egokitzen jotzen dituen txostenak galdegin abalko ditu, horien irizpideen arabera ebazteko. Hori horrela, Kontu Hartzailetzaren oharrek edo eragozpenek etete-eraginik ez badute, ez zaizkie kudeaketa-organoen iritziei gailenduko, ez eta Alkatetza-udalburutzak finantza-babesean eskudun den kontrol-organuari eska diezazkiokeen txostenei ere. Kontuan izanik oharrek egiten dituzten Kontu-hartzailetzako txosten guztiak kasuan kasuko dekretuari gebitzen zaizkiola Alkatetzak hori izenpetu aurretik, eta goiburuan aipatzen direla, ondorio egokiak izan dituzan txostena organo eskudunari emateko izapidea egindakotzat jotzen da.

19. oinarria.- Informazioa

Toki Erakundeko buruak ekitaldian igarotako denboraldiaren finantza- eta aurrekontu-informazioa igorriko dio Udaltzaren Osoko Bilkurari, hiru hilean behin, gutxienez. Informazio horrek Osoko Bilkurak zehaztutako egitura izango du.

- Diru-sarreraren aurrekontua, partida-mailan eta kapituluko laburpena.
- Gastuen aurrekontua, partiden, kostu-zentroen eta arloen mailan.
- Kontaketa-akta.

Aurrekontua Beteazteko 2018ko Arauak 19. oinarrian ezartzen duen informazioa hornitzeko betebeharrak gauzatuz, eta aurrekontu-egonkortasunari, ordaintzeko batez besteko aldiari eta gastu-arauari lotutako betebeharren betetzeari buruzko hiru hilez behingo informazioarekin osatuta, jarraian zerrendatzen diren Kontu-hartzailetzako txostenak eta Diruzaintzako txostenen laburpenak jakinarazi

zaizkio Osoko Bilkurari ekitaldiko hiruhileko bakoitzean. Gauzak horrela, Udalbatzaren ondoko erabakiak hartu dira:

- Udalbatzaren 7. Erabakia, 2017-05-25ekoa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2017ko lehenengo hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu-arauarena ere.
- Udalbatzaren 2. Erabakia, 2017-09-28koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2017ko bigarren hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu arauarena ere.
- Udalbatzaren 2. Erabakia, 2017-12-28koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2017ko hirugarren hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu arauarena ere.
- Udalbatzaren 4. Erabakia, 2018-02-22koa; horren bidez, Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren aurka Borrokatzeko Neurrien uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa betez egindako Kontu-hartzailetzako txostenaren eta Diruzaintzako txostenaren laburpenaren beri eman zen, bai eta 2017ko laugarren hiruhilekoari dagozkion betearazpen-egoerena, aurrekontu-egonkortasunaren betetze mailarena eta gastu arauarena ere.

FISKALIZAZIO OSOA

Ondorioz, aurreko guztiarekin bat etorritz eta, batez ere, Aurrekontu Orokorrekin batera eranskin gisa onetsitako 2016ko Aurrekontua Betearazteko Arauaren “*Gastuaren Fiskalizazioa eta Kontrola*” VI. tituluaren ezarritakoa betez, Kontu-hartzailetzaren urteko txostenaren berri ematea, puntu independente gisa, gaitzerrendaren barruan.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago jaso diren datu guztiak 2017ko urtarrilaren 1aren eta urte bereko abenduaren 29aren arteko espedientei buruzkoak direla.

Aurretiko fiskalizazio mugatuaren emaitzak, 2017

Aurreko guztia ikusita, eta gaia arautzen duen araudian xedatutakoa betez, honako hau jakinarazten da: 2017ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 29aren artean fiskalizatutako 1.230 espedienteetan, arduradunek izapidetzeari uko egin diotelako edo konpondu direlako baztertu diren eragozpenak eta oharrak alde batera utzita, Kontu-hartzailetzaren honek, gaur egun arte, ez du eteteko oztoporik adierazi aipatutako ekitaldian. Izan ere, ez daude honako zio hauetan oinarrituta: a) kreditu gutxiegi egotea; b) proposatutakoa desagokia izatea hartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaerarako; c) arduradunaren sinadurarik ez agertzea dokumentuan, hori betebeharra aitortzeko euskarri baita, eta zerbitzuaren, horniduraren, inbertsioaren edo egindako gastuaren oniritzia baitakar; d) organo ez-eskudunak onetsi izana.

Fiskalizaziorako espedienteak direla eta, esan behar da horietako 1.000tan oharra dekretuaren testuan bertan egin dela (goiko aldeko eskuinaldean); gainerako 230etan, hau da, espedienteen % 23an, gutxi gorabehera, dagokion fiskalizazio-txostena edota kreditu-izakinaren txostena ekarri dute, espazio

handiagoa behar delako (zenbait aurrekontu-aplikazio barne hartzen ditu, informazio osagarria jasotzeko egokitasuna) edo proposatutako gastuari edo erreferentzia-espeditentari buruzko oharrak jasotzen dituztelako (prozedura eteten ez duten eragozpenak).

Zehazkiago, fiskalizatu diren 1.230 espedienteetatik 122tan, hau da, aurretiko fasean fiskalizatutako bolumen osoaren % 9,92an, 2017ko aurrekontua betearazteko emandako ebazpenak jasotzen dira, zeinek Kontu-hartzailetzak adierazitako eragozpenen (etenik ez dakartzatenak) aurka egiten duten.

Ohar horiek guztiak kontratazioaren alorrekoak dira.

Ebazpenei dagokienez, berriz, jarraian zerrendatzen diren hirugarrenentzako ordainketa-aginduak izan dira, jarraian ere adierazten diren kontratuatarako.

Bide batez, berariaz aipatu behar da 1. 2. eta 3. zenbakietako kontratuak dagoeneko ez daudela egoera irregularrean.

	Enpresak	Kontratuak	Egoera
1	Elai Zerbitzuak	Lorategiak dituzten eremuak, belar artifizialeko zelaiak eta Sarrienan dagoen belar naturaleko futbol-zelaia mantentzea.	Epemuga: 2014-01-30
2	Electricidad Martín	Herriko argiak mantentzea.	Epemuga: 2010-11-22
3	Asesoramiento en Procedimiento Sancionador S.L.	Laguntza eta babes teknikoko zerbitzua mugikortasuneko eta bide-segurtasuneko programaren segimenduan, eta kudeaketa osoa zehapen-prozeduran.	Epemuga: 2012-12-31
4	Zurich Insurance PLC (Aon Gil-ek eta Carvajal SA enpresak proposatuta)	Udalaren kalte materialen eta erantzukizun zibilaren aseguru-primak.	Lizitatu barik.
5	Diseño e Imagen OMA 3 S.L.	Udal-aldizkari baten eta Udalaren argazki-zerbitzuen diseinua, prestaketa, idazketa, ekoizpena eta banaketa.	Epemuga: 2015-12-14
6	Tarima Logística y Espectáculo S.L.	Aurrez aurreko ikuskizunen eta proiektio zinematografikoen ekoizpen teknikoa, bai eta Leioako Udalaren Kultura eta Gazteria Arloko eszena-espazioetan harrera egiteko, antzetzeko eta gero desmuntatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen prestazioa, baita instalazioen prebentziozko mantentzea eta arrunta ere.	Epemuga: 2016-08-01
7	La Casa del Perro	Etxeko animalien udal-zerbitzua	Epemuga: 2013/09/01
8	Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak S.L.	“Aterpe Leioa Gaztegunea” kudeaketa-zerbitzua	Epemuga: 2016-10-31
9	T-Systems	Leioako Udalaren ERPren barruan dauden	Epemuga:

		kudeaketa-aplikazioetarako mantentze-zerbitzua.	2017-04-20
10	Caser (EBS SA enpresak proposatuta)	2017o bizi-aseguru kolektiboa.	Lizitatu barik.
11	Lagunduz- Laguntza emateko Elkartea	Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	Epemuga: 2017-03-13
12	Agintzari S.Coop.	Esku-hartze psikosozialeko zerbitzua	Epemuga: 2015/01/01
13	Solasgune	Leioa udalerrirako hezkuntza-proiektu eta -ekintzak diseinatzeko, antolatzeko eta garatzeko zerbitzua.	Epemuga: 2015-12-15
14	Etorkintza Fundazioa	Mendekotasunak Prebenitzeko Programa garatzeko zerbitzuak.	Epemuga: 2017-05-30
15	Dual (Aon Gil-ek eta Carvajal SA enpresak proposatuta)	Administrarien eta goi-zuzendarien erantzukizun zibileko aseguru.	Lizitatu barik.
16	Eraman Gruas eta Servicios SA	Udal garabi-zerbitzua	Epemuga: 2017-07-29
17	Das (Aon Gil-ek eta Carvajal SA enpresak proposatuta)	2017. urterako defentsako erantzukizun zibileko aseguru.	Lizitatu barik.
18	Gestores Europeos sozietate mugatua	Diru-laguntzen arloan laguntza tekniko emateko zerbitzuak.	Epemuga: 2017-09-07
19	DAS (Aon Gil-ek eta Carvajal SA enpresak proposatuta)	Erantzukizun zibileko aseguru.	

Diru-laguntzen espedienteak direla eta, esan behar da 2017an egin diren deialdi publikoen % 100ek Leioako Udalaren Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorren babesean alkatetzadekretuaren bidez onetsitako prozeduraren oinarri arautzaileak izan dituztela. Halaber, espedienteetan jasota dago kasu bakoitzeko emakida-dekretua, txosten tekniko batean oinarritutakoa.

Izapidetu diren diru-laguntzen % 100 2017-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusi dira.

Emandako diru-laguntza izendun fiskalizatuaren kasuan, adierazi behar da guztiak islatu zirela 2017. urteko Aurrekontu Orokorrean eta haren Transferentzien Eranskinean:

Ez da aurtan izapidetutako kontratazio-prozedurei buruzko oharrik egin.

Gerorako fiskalizazio osoaren emaitzak, 2017

2017an izapidetu diren ordainketa-proposamenen artean, zenbaitek ondoko zerbitzuen eta horniduren (aldizkakoak eta segidako traktukoak) ordainketa-aginduak jaso dituzte, indarreko kontraturik ez daukatenak: udal-eraikinetako energia-hornidura, gas-hornidura, erregai-hornidura, telefono bidezko komunikazioak, igogailuen mantentze-zerbitzua eta airea girotuko, berokuntza- eta aireztapen-instalazioen mantentze-zerbitzuak.

Diru-sarrerei dagokienez, aurretiko fasean fiskalizatu dira 417/17, 462/17, 611/17, 693/17 eta 2.160/17 dekretuak, zeinen bidez ondokoak onetsi diren: kirolen errolda fiskalak, Hiri Lurren balioaren gaineko zergak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (hirikoak), Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (landakoak) eta jabari publikoa mahai eta aulkiekin okupatzeko errolda.

ONDORIOA

Hori jakinarazten da Aurrekontua Betearazteko Arauak eta Bizkaiko Toki-erakundearen Arrazionalizazioari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Legeak xedatutako ondorioetarako, 2017ko ekitaldiko fiskalizazioari dagokionez; horretarako, izapidetu diren espedienteak oinarri hartu dira, baita horretarako egin diren txostenak eta espedienteak ere. Hala badagokio, dokumentazio osagarria ere aurkeztuko da.

Honako txosten hau 2017ko Aurrekontuko Kontu Orokorraren espedienteari lotzen zaio, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igorriko zaio kontuak emateko.

Txosten honi erantsita Kontu-hartzaitzaren erregistratutako 1230 espedienteak zerrendatzen dira, aurretiko fiskalizazio mugatuaren kontrola egiteko, bai eta egin diren 230 txosten indibidualak ere.

Ikusi da Osoko Bilkurari igortzeko betebeharra.

Udalaren Osoko Bilkurari 2016 ekitaldiko urteko txostenaren berri eman zaio, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak ezarritakoa betetzeko. **Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.**

3.- UDAL-ERAIKIN ETA -LOKALEN GARBIKETAREN MAIATZEKO FAKTURA.KONTU-HARTZAITZAKO TXOSTENA.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian emandako 45. irizpena (egiaztagiria espedientean jaso da) Udalbatzaren onespeneraren menpe jarri zen 2018ko ekainaren 19an.

Ikusita: Bulego Teknikoak udalaren lokalak garbitzeko zerbitzuaren inguruan egindako txostena.

Ikusita: kontratu horren fiskalizazioari buruzko Kontu-hartzaitzako txostena.

Oinarria: Osoko Bilkuraren 8. Erabakia, 2011ko irailaren 29koa; horren bidez, udalaren lokalak garbitzeko zerbitzuen kontratua adjudikatu zen.

Oinarria: 2011ko azaroaren 7an izenpetutako kontratuaren bitartez formalizatu zen; lau urtetarako, lehendabizi, kontratua sinatu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Kontratua beste bi urtez luzatu ahal zen, eta sei urterako gehienez ere.

Oinarria: administrazioko klausula arautzaileen agiriko 10. puntuaren arabera, "kontratu honen iraupena lau urtekoa izango da, administrazio-agiriko eran formalizatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Dena dela, bi alderdiak ados badaude, kontratua aldatu eta luzatu ahalko da. Horretarako, kontratua iraungi baino hiru hilabete lehenago adostu beharko dute,

gutxienez. Edonola ere, kontratuaren iraupen osoa (luzapenak barne) ezingo da sei urte baino gehiagokoa izan”.

Oinarria: ondorioz, kontratazio-epea iraungi egin da eta, beraz, ez dauka indarreko kontratu batek bermatzen duen lege-babesa gaur egun.

Oinarria: enpresak zerbitzu horiek ematen ditu oraindik ere eta, horrenbestez, gauzatzen dituen lanen fakturak egiten ditu. Hala frogatzen du TB 2018/616 zenbakidun fakturak, 2018-05-25ekoak (Kontabilitate Erregistroko zk.: 2.605). Faktura horren zenbatekoa 171.281,79 euro izan zen (gehi BEZa: 25.969,18 euro), eta horrek 207.250,97 euroko gastua ekarri du, guztira, Leioako udal-erakinak eta -lokalak garbitzeko zerbitzuengatik maiatzean.

Oinarria: Udal Bulego Teknikoak ekainaren 11n emandako txostena, aipatutako faktura ordaintzearen alde egiten zuena zerbitzu horiek gauzatu egin direlako.

Oinarria: Udal Kontu-hartzaileak ekainaren 13an aurkeztutako eragozpen-oharra, udalaren lokalak garbitzeko zerbitzua gauzatu zuen enpresaren faktura ordaintzeari zegokionez. Hain zuzen, argudiatu zuen faktura ordaintzeak “ordaintzeko betebeharrak aitortzeko oinarrizko betekizunak eta izapideak espedientetik baztertzea” suposatuko lukeela.

Oinarria: Sektore Publikoko kontratazioa arautzen duen araudia, alegia, urriaren 30eko 30/2007 Legea eta azaroaren 8ko 9/2017 Legea; baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta Aurrekontua Beteazteko Araua ere. Azkenengo hori gaur egun indarrean den 2018ko aurrekontu orokorrarekin batera onetsi zen eta hari gehitu zitzaion eranskin modura.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu ostean, Udalbatzak, aldeko hamaika botoren gehiengoarekin (Euzko Abertzaleak taldetik etorritako zortzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzianak) eta zortzi abstentziorekin (Esnatu Leioa taldeko lau zinegotzien botoak eta EH-Bildu Leioa taldeko bi zinegotzianak, bilkurara azaldu zirenak, eta Leioako Talde Poupularreko bi zinegotziak), honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Udal Kontu.hartzaileak agertutako eragozpena kentzea, udalaren lokalak garbitzeagatiko 2018ko maiatzeko faktura ordaintzeari buruzkoa, Udalaren Zerbitzu Teknikoek 2018ko ekainaren 11n hartara egin zuten aldeko txostenarekin bat etorriz.

Bigarrena.- Horrenbestez, TB2018/516 zenbakidun faktura (Kontabilitate Erregistroko zk.: 2.605/18) ordainduko da. Fakturaren zenbatekoa 207.250,97 euro da (BEZa barne), eta Enviser Servicios Medioambientales SAU enpresari ordainduko zaio, maiatzean udalaren lokalak garbitu dituelako.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea aurreko puntuan aipatutako enpresari.

4.-HIZKUNTZA POLITIKARAKO ARLOA:EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA-PLANA

Kultur, Kirol, Gazteria eta Hezkuntza Politikako Informazio Batzordeak emandako 46. irizpena (egiaztagiria espedientean jaso da) Udalbatzaren onespeneraren menpe jarri zen 2018ko ekainaren 20an.

Aztergaien zerrendan sartutako gaia irakurri ostean, Udaleko talde desberdinek esku hartu dute:

Grupo Popular de Leioa Taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.

Bai. Bueno, hasteko gaiarekin, Plan honekin, esan beharra dago hasieratik gure ustez Plan honetan gauzatzen edo proposatzen diren ekintzak, orokorrean, guk positiboki ikusten ditugula eta beraz positiboki ikusten dugula Plana, eta alde horretatik gure aldeko botoa emango diogu Plan honi. Baina, baita ere, baditugu aspektu batzuk, gure ustez, kezkarriak direnak eta gustatuko litzaiguke baita ere aipatzea aspektu txiki horiek, behintzat, agerian uzteko.

Gazteleraz jarraitzen du:

Como decía, algunos aspectos de este plan nos parecen preocupantes, aunque en general vamos a dar nuestro voto afirmativo.

Por ejemplo, eso que dice en el punto 4.2.1, de que el euskera será lengua de trabajo habitual de una manera cada vez mayor tanto del personal funcionario del Ayuntamiento, bueno, trabajador del Ayuntamiento que tenga certificado el correspondiente perfil lingüístico, como de cualquier trabajador y trabajadora del sector público que sea capaz de ejercer en euskera. Esta, digamos, obligatoriedad o ese será “cada vez mayor” en el que no queda, no ha lugar, digamos, a la voluntad del trabajador o trabajadora de ejercer también su derecho lingüístico, siempre, evidentemente, atendiendo como es debido a la persona, en este caso al ciudadano que tenga que atender y quiera ser atendido en euskera o castellano, pero digamos, esa libertad interna, entendemos que este tipo de afirmaciones tan categóricas de que su lengua de trabajo habitual será cada vez mayor y siempre en euskera, bueno, esperamos que luego en la práctica, este tipo de afirmaciones tan categóricas no sean tan, no se lleven a la práctica.

Y un par de apuntes más también: en el punto 14.5.2, en cuanto a la Administración, otro de los planes o actuaciones dice: “Organizar actividades comunicativas para que la ciudadanía utilice el euskera de manera natural en sus relaciones con la Administración”. Faltaría quizás, que en otros momentos sí se pone, lo de “sí así lo desea la ciudadanía o el ciudadano”.

Y, por último, otro aspecto en el área socioeconómica, el 14.6.4, dice: “Poner en marcha campañas a través de las asociaciones de comerciantes para asegurar la presencia del euskera tanto en la rotulación fija como en la variable”. Se supone que también dependiendo de la voluntad del comerciante que quiera, digamos, que su comercio en su rotulación exterior tenga una u otra o las dos, o el idioma que él quiera en su rotulación, pero bueno, ese “asegurar”, pero sí es cierto que en el conjunto del plan este tipo de afirmaciones tan categóricas escasean y en ese sentido, bueno, pues el plan tiene ese punto, lo hemos visto, en general, positivo, de que se pretende el fomento, asegurar la presencia del euskera siempre en un tono general positivo y, bueno, no impositivo, y por eso pensamos que este plan en términos generales es beneficioso. Y de todas formas, es evidente, también, que vamos a estar encima o, digamos, atentos, para que en su aplicación no se cometa ningún tipo de exceso respecto a otros, en este caso al castellano.

Y sí nos gustaría hacer una reflexión más general, si nos permite la Alcaldesa, respecto a este tipo de planes. Es cierto que llevamos, quizás desde el inicio del periodo democrático, necesariamente además, con estos planes de acción del euskera por la evidente situación, digamos negativa del idioma y, bueno, durante ya más de 40 años estos planes de acción del euskera han sido necesarios, pero quizás va siendo el momento —esto está hasta el 2022, este plan que ahora se trae a este Pleno—, quizás, y entendemos que más que quizás pueda ser ya necesario abordar el tema lingüístico en nuestra sociedad y en nuestro municipio, concretamente, desde una perspectiva más amplia. Es decir, el euskera debe seguir contando a nuestro entender también con un interés evidente e importante para asegurar su presencia y su uso en nuestra sociedad, pero también es cierto que estamos en una sociedad que avanza hacia la importante presencia de otros idiomas, en este caso del idioma inglés. Y también es cierto que, a nuestro juicio, en ocasiones, este querer apostar por un idioma, en este caso el euskera, y desde unas posiciones que utilizan el idioma con fines, bueno, ideológicas y queriendo utilizar este idioma, el euskera, como un instrumento también ideológico y, en este caso, en beneficio de unas posiciones nacionalistas, se han cometido o se cometen, digamos, situaciones, que a nuestro juicio van en contra de una sociedad normalizada en el uso de los idiomas. Y por poner un ejemplo sencillo y simple, mucha de la señalética que tenemos en nuestro municipio, bastante, está exclusivamente en euskera y no se entiende, es decir, por mucha similitud que haya en algunas expresiones entre un idioma y otro, tiene que respetarse la presencia del castellano por ejemplo en la señalética. Bueno, pues eso seguramente habrá que corregirlo, entendemos.

Por lo tanto, entendemos que habrá que ir hacia planes de acción que miren más allá de un solo idioma, que miren más allá sobre una política lingüística general que evidentemente apoye el euskera, pero que también tenga muy presentes este tipo de situaciones, que tienen que evitarse, de discriminación del castellano. O, por ejemplo, en los letreros en este Ayuntamiento, donde el euskera aparece con letras negritas y de mayor tamaño, y la letra en castellano aparece más pequeña. Bueno, pues entendemos que tampoco tiene por qué ser eso así, entendemos que tienen que ser situaciones a corregir.

Y en una sociedad además donde se avanza, repito, hacia una mayor presencia del inglés, y es que en uno de los puntos de este plan de acción se dice en el ámbito educativo, si me permite la Alcaldesa, dice en el punto 14.3.1 dice: *“Enseñanza. Lograr la implicación de la población joven que está a punto de empezar estudios de ESO, Bachiller o Formación Profesional, y también la implicación de sus familias, explicándoles la importancia y ventajas de seguir estudiando en modelos lingüísticos en euskera”*. Pues seguramente ya no solo en euskera, sino que hay otros idiomas también, por ejemplo el inglés, y tampoco hay que cerrar a que apuesten solo por el euskera. El euskera tiene que ser apoyado, pero también hay que abrirse a otras realidades, y entendemos que llega el momento de abordar planes de acción y planes y estrategias lingüísticas más globales, no solo centradas en el euskera, porque si no también, y como detalle también, nos puede llevar a situaciones —a nuestro juicio un poco, si me permite, ridículas— como que en la normativa de las barracas de este año, para la instalación de las barracas, expresamente se diga que la música de los barraqueros tiene que ser 50% en euskera y 50% en castellano, es decir que no pueden poner música en inglés ... Me refiero a que si llegamos a determinados puntos, podemos caer, digamos, en situaciones absolutamente poco lógicas.

Por tanto, como reflexión final, ya para acabar, apostamos por una reflexión más general en cuanto a la política lingüística y a la realidad lingüística en nuestro caso de nuestra sociedad, de la sociedad de Leioa, y pensamos que los próximos planes lingüísticos tienen que ser más, deberían ser más generales y tener en cuenta las diferentes realidades lingüísticas que existen en la sociedad, sin por ello, repito, y evidentemente, sin que ello suponga seguir apostando por el

euskera, pero también, corrigiendo la situación en determinados aspectos que tiene el castellano y apostando también por el idioma inglés u otros que se puedan considerar también importantes.

EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunaren esku hartzea.

Bai. Lehenik eta behin nahiko nuke azalpen bat eman: Naiara gaixorik dago eta horregatik gaur ezin izango da etorri, eta beraz, bere partez eskatu digu zuei ere komunikatzea gaur ezin bada etorri gaixorik dagoelako dela.

Bigarrenik, uste dugu gaizki egin dugula elementu batean eta gaizki ulertu baten ondorioz (Jokinek uste dut batzordean horrela azaldu zuela), emendakinak edo alegazioak egiteko epeen inguruan gaizki ulertu baten ondorioz, Plan honi emendakinik aurkeztu ez izana desenkusatu nahi dugu. Guk uste genuen lehenengo aurkezpena izango zela eta gero alegazio epe bat zabalduko zela, eta gaizki ulertu baten ondorioz ez diogu alegaziorik egin. Beraz, barkamena eskatu nahi dugu, horrelako gai garrantzitsu batean horrelako gaizki ulertu baten ondorioz, gure proposamenak egiteko aukera ez erabiltzeagatik.

Gero sartu nahiko nuke eztabaidara; Alderdi Popularraren interbentzioa entzun eta gero, nahiko beldurturik bukatzen du batek. Izan ere, entzun direnak entzutea euskaldunoi gogorra egiten zaigu. Gure ustez, Leioako errealitatearen irakurketa guztiz desitxuratu bat ematen du. Horrelako planak oraindik beharrezkoak dira eta beharrezkoak izaten jarraituko dute. Aipatu da duela 40 urte plan hauek zentzua zutela eta orain euskara sekulako egoeran omen dagoela, baina azkeneko datuak eta gaur, adibidez, Legebiltzarrean horren gainean eman diren datuek adieraztera ematen dute euskararen egoera eta euskararen normalizazioa ez dagoela behar lukeen lekuan. Ez dago. Eta zoritxarrez, plan hauek eta plan handizaleagoak ere beharrezkoak dira gaur eta izango dira hurrengo urteetan, hizkuntza eta kultura bat bere baitan mantentzea eta ez hiltzea nahi izatekotan. Baina noski, zuen intentzioa bada hizkuntza baten aurka joatea, beti aurrera joatea ekidinez... Hau da: lehenik eta behin esaten dut “bai, euskararen alde nago”, baina babestuko ditudan posizio guztiak dira euskara kaltetuko duten posizioak. Izan ere, aipatu dituzun elementuekin euskara ez litzateke aurrera aterako. Zuk aipatu dituzun elementu guztiak bere baitan egingo balira, orain, ziurrenik, ez litzateke euskaraz mintzatzeko gai garenon kopurua hain altua izango, euskaraz mintzatu gaitezkeenen kopurua ziur aski txikiagoa izango litzateke eta euskararen biziraupena askoz gatzagoa izango litzateke..

Gainera, uste dut berebiziko garrantzia duten hainbat elementu aipatu dituzula. Lehenik eta behin eta klasiko bat: euskara elementu ideologikoekin erabiltzen dela, euskara politizatzen dela. Baina Euskal Herrian euskara politizatu izan bada, Euskal Herrian euskarak ideologia bat izan badu, ideologia bat baino gehiago nire ustez, izan da horren kontra eraso konkretuak egon direlako. Euskarari eraso egin zitzaion ideologia oso konkretu batzuegandik, eta azkena, eta gogorrenetarikoa izandakoa, Frankismoaregandik. Beraz, euskararen zapalketa ideologia batzuetatik bazetorren, horri erantzuna ere beste ideologia guztiek eman beharko genieke, eta bereziki denok batzen gaituen ideologia bat, dela demokratik; uste dut hizkuntza guztien eskubideak babestu beharko genituzkeela. Baina noski, batzuen alderdia fundatu zuenak fundatuta, normala iruditzen zait posizio horiek mantentzea.

Gero, betiko elementuak eta euskaraz eta gaztelaniaz gain beste hizkuntza batzuk daudela. Baina kuriosoa iruditu zaigu, zure interbentzioa egin duzun bitartean, hizkuntza bakarra aipatu izana. Bakarrik aipatu duzu ingelesa gaztelaniaz eta euskaraz gain, eta jakina, horrek ere agerian uste du zuen posizio politikoa. Zuei ez zaizkizue inporta Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideak. Ez zaizkizue inporta. Inporta zaizuen da zuen *euskarafobia* hori disimulatuko duten elementuak mahai gainean jartzea, zeren eta ez dituzu aipatu Euskal Herrian bizi diren hainbat arabiarren hizkuntza eskubideak, ez dituzu aipatu Asiako hizkuntza desberdinak hitz egiten

dituztenen hizkuntza eskubideak... Horiek guztiak beti ahazten zaizkigu, eta beti goaz ingelesera, ea zelan egin diezaiokegun kalte euskarari. Baina hor ere, nik uste dut akats bat egiten duzula. Izan ere, euskara defendatzen dugunok ez dugu inoiz inolako arazorik beste hizkuntzen ezagutza defendatzearekin, beste hizkuntzen erabilera defendatzearekin. Zeren eta hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak, beste hizkuntza batzuk ezagutzeko aukerak zabaltzen ditu, eta hori edozein adituk esan ahal digu. Beraz, euskara erasotzeko esatea ingelesa ere defendatu behar dela, bada, bere baitan antagonikoa den ideia bat da. Euskara bultzatzeak eta Euskal Herrian euskaldun gehiago izateak lagunduko du Euskal Herrian ingelesaren ezagutza igotzea, eta hori edozein linguistak defendatuko duen posizio bat da. Bigarren hizkuntza ikastea zaila da; hirugarrena errazagoa egiten da, laugarrena, gero eta errazagoa. Beraz, ez dakit zer beldur duzun bigarren hizkuntza bat defendatzearekin Euskal Herrian. Horrek zabalduko dizkio aukerak hirugarrenari, ez dizkio itxiko.

Eta gero, betikoa: gaztelaniaz mintzatzen direnen hizkuntza eskubideen urraketak Leioan. Bada, nik ez dakit gaztelaniaz soilik hitz egiten dutenen hizkuntza eskubideak hain urratuak omen dauden, beraien hizkuntza desagertzeko arriskuan ikusten duten, kuriooa egiten zait hain hedatua dagoen hizkuntza bat desagertzeko arriskuan egotea. Baina euskara bai egon dela desagerpen arriskuan eta ahazten badugu berau defendatu behar dela, desagerpen arriskuan jarraituko du. Beraz, konparaketa hori egitea gaztelania eta euskaren artean uste dut pixka bat desorekatuta dagoela. Gainera, nik dakidala, euskarak historian ez du lagundu izan hizkuntza baten beraren desagerpenean; gaztelaniaz uste dut ezingo zenuketela berdina esan. Edonork defendatu dezake gaztelaniaren ondorioz hizkuntzak desagertu direla, Latino Amerikan, kasurako. Baina bueno, jarraituko dugu euskara erasotzen, euskarak gaztelania arriskuan jartzen duelako.

Bukatzeko, horrelako planak beharrezkoak badira da udal honetan ezin dugulako gure hizkuntza denean mintzatu marko guztietan. Eta hori argi dago eta ez diogu inori leporatu nahi, ez dugu hau erabili nahi leporatzeko ez dakit norengatik ezin dugula batzorde bat euskaraz egin edo beste elementu batengatik ezin daitezkeela testuak soilik euskaraz aurkeztu. Zeren eta mozioak soilik gaztelaniaz aurkezten dira, baina mozio bat soilik euskaraz aurkezten denean, hemen denok botatzen ditugu eskuak burura. Beraz, hemen bagaude batzuk non gure hizkuntza eskubideak urratuak ikusten ditugun, zeren eta gure hizkuntza eskubidea euskara da, gure autoa euskaraz bizitzea izan da, guk gaztelaniaz jakiteak ez digu zertan inposatu behar gaztelaniaz mintzatzera, baina hori ez duzu aipatzen. Hemen ez da aipatzen inor behartuko denik soilik euskaraz mintzatzera, baina soilik gaztelaniaz hitz egitea udal honetan gertatzen den errealitate bat da, eta ezagutzen duzu. Beraz, ez zait batere zintzoa iruditu egin duzun interbentzioa.

Euzko Abertzaleak taldeko Iban Rodríguez Etxebarriaren esku hartzea.

Ni alde batetik pozik nago, behintzat, PP-ren baiezko botoa lortzen bada, zer edo zer bateratua bozkatuko da eta gainera, euskararen aldeko gauza bat. Euskara ez da alderdiak hartu behar ditugun gauza edo meritu bat. Euskara da herri honek daukan garrantzizko eta bizitzazko benetan sentimendu bat, benetan historia bat, benetan kultura bat, eta hori babestu egin behar da. Ez duzu esan nahi izan horrela, baina nolabait, Xabier, aipatu duzu euskara egon dela gutxietsita, arriskuan eta egon da sasoi bat, behintzat, galtzeko arrisku larrian aurkitu dena. Zoritxarrez, arrisku hori gaur egun ere badago, globalizazioa dela eta hizkuntzetara ere heltzen da eta euskara mantendu ahal izatea ez bada euskaldunok sentitzen garenongatik -eta euskaldunok ez diot euskal alderdi politiko batena, baizik eta euskara maitatzen dugunok-, ez badugu hori mantentzen eta bizitzen egunerokotasunean, galtzeko arrisku larrian jarraituko du. Zoritxarrez, gaur egun oraindik, Euskal Herrian, Euskadin, ez daukagu euskaraz bizitzeko eskubidea. Erdaraz edonora joan gaitezke eta bizitzeko erraztasun handiak daukagu, euskaraz ez. Euskaraz ez. Euskaraz ezin

gara hainbat medikuetara joan, euskaraz ezin dugu epaiketetara joan, euskaraz administrazioetan be bai, nahiz eta gero eta pauso gehiago ematen diren, oraindik emateke daude hainbat pauso. Beraz, oraindik lanean jarraitu beharreko esparru sakon bat da euskara.

Beste hizkuntza batzuk ezagutzea primeran dago, gainera nik uste dut beharrezkoa izan beharko litzatekeela. Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hori badago ere demostratuta, behintzat hizkuntza mailan, daukagun mentalitatea askoz ere zabalagoa da. Hori, zoritxarrez, Espainiako hainbat puntuetan ez da gertatzen. Erasotzat ikusten da euskara hizkuntza ofizial bat izatea eta horren kontra egiten da jo eta ke. Eta hori ez da horrela. Hemen, gaur egun bi hizkuntza ofizial dauzkagu eta bien bermea, edo biak bermatu behar dira, bertan bizi garenok hizkuntza bi hauetan bizitzeko aukera izan behar dugu. Etorkizunean planteatzen bada beste hirugarren hizkuntza bat be bai ofiziala izatea berdin dit ingelesa, txinatarra, frantsesa, arabiarra edo berdin zait zein, bada, orduan defendatu beharko dira hizkuntza horiek, baina gaur egun bi daude, eta bi horietatik batek oraindik ez dauzka bermatuta eskubide guztiak. Beraz, horren alde egin behar dugu.

Eta gustatuko litzaidake esatea, nahiz eta helegiterik ez egon, gure alderditik edo gobernuaren aldetik prest gaudela, hau hasiera besterik ez dela. Orain lan egiteko momentua heldzen da eta guztion artean euskararen alde lan egiteko momentua heldzen da. Beraz, edozein proposamen, edozein ekintza, edozein asmo dela eta, bertoko gobernuak ateak zabalik edukiko ditu proposamen hauek ahalik eta era positiboenean aurrerantz botatzeko.

Grupo Popular de Leioa Taldeko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren esku hartzea.

Bai, bueno, labur. Bakarrik, nire interbentzioan argi eta garbi utzi dudala uste dut, gure ustez oraindik euskararen sostenguan, euskara sustatzea eta babestea beharrezkoa dela, guk ez dugu ukatzen hori. Beraz, ez dakit zein alderdiri buruz ari den hitz egiten EH Bildu, ez dakit. Hor berriro ere Frankismoa aipatu da, ez dakit zein alderdiri buruz. Baina benetan, euskara sustatzea eta babestea beharrezkoa da oraindik, noski. Baina gure ustez, agian, hausnartzea beharrezkoa izango da datorren urteetan. Kontuan hartzeko ez bakarrik euskararen sostengu hori eta egoera, baizik eta baita azken urteetan egindakoari buruz ere hausnartzeko. Adibidez: lehen kartel edo adibide bat nengoen bilatzen. Hor daukagu adibide bat. Euskara dago hor idatzita beltzez jarrita eta letra tamaina handiago batekin, eta gaztelania ez da ia-ia ikusten, nik, behintzat, hemendik, bale? Gure ustez horrek ez dauka zentzurik. Edo lehen esandakoa, seinale horietan, euskaraz bakarrik agertzea, gaztelaniaz ez da agertzen. Bada, ez dauka logikarik gure gizartean. Bi hizkuntza agertu behar dira normaltasunez. Beraz, gauza batzuk azken urteetan ez dira ondo egin eta gure ustez hausnarketa egin behar da hor. Baita ere, aldi berean, euskara bultzatzen eta sostengatzen jarraitu behar da, baina hausnarketa hori egiten.

Eta hirugarren hausnarketa bat: gaur egun gure gizartean beste hizkuntza batzuen erabilera ari da zabaltzen, adibidez ingelesarena, eta errealitate hori ere kontuan hartu behar da hausnarketa horretan. Hori da esaten duguna, hori bakarrik. Ez goaz, gure ustez, euskararen aurka, ez dakit, beraz ez dut ezta inola ere ulertu EH Bilduren mintzaldia. Antza denez, nahiko gustura zaudete diskurtso horrekin, eta errepikatzen duzue diskurtsoa nahiz eta gure hitzak beste batzuk izan eta zaudete hor nahiko gustura Frankismoarekin eta posizio horrekin, eta gustatuko litzazueke hemen ez dakit nor egotea, baina errealitatea ez da hori. Beraz, normala da: zuei ez zaizkizue hausnarketa orokorrak gustatzen eta baita beste errealitateak kontuan hartzea. Zuei gustatzen zaizue hori, bakarrik errealitate bakarra, hizkuntza bakarra, posible balitz hizkuntza bakarra, eta denok hemen badakigu, badakigu zer nahi duzuen. Alde horretatik beste hizkuntzak eta beste hausnarketak eta beste egoerak ez dituzue kontuan hartzen. Nahiago duzue ikuspegi itxi hori eta errealitate bakar bat kontuan hartzea. Gu ez gaude ados horrekin, gure ustez gizartean gertatzen dena kontuan hartu behar da, eta egindakoari buruz hausnartzea beti dago ondo.

Bueno, geratzeko gauza positiboekin: gure ustez Plan honetan gauzatzen dena, orokorrean positiboa da, eta hori da gaur egun gure ustez garrantzitsuena, eta Ibanek esan duen moduan hemendik aurrera landu egin behar da, baina lan horretan ere, gure ustez, hausnarketa hori egon beharko da hizkuntza desberdinei buruz.

EH-Bildu Leioa Udal Taldeko Aritz Tellitu Zabala jaunaren esku hartzea

Lehenik eta behin, Ibanen mintzaldiaren ostean, azpimarratu nahi dugu, guk ere eta epez kanpo bada ere, aukera hori zabaldu ostean gure ekarpenak eta proposamenak egiteko konpromisoa hartzen dugula eta, aukera egotekotan, uztailan zehar gure proposamenak helaraziko ditugula gai honen inguruan. Badakigu gaur bozkaturia izango dela eta guk gaur baiezkota emango diegula, baina administrazio publikoetan ere gero eta normalagoa izan behar den joera jarraituz, hau da, epeak eta formalismoak alde batera utzi eta zentzua erabiltzearen baitan, espero dut gure ekarpenak ere bere eragina izatea eta kontuan hartuak izatea. Aipatu den moduan, horrela egiteko keinua egin ostean, hori horrela izango dela uste dugu.

